

Aria

Aurkibidea

Udalerria: Aria

Sarrera



Nafarroako ipar-ekialdeko udalerrri txikia da, Aezkoa eskualdekoa, ezkutuan gelditzen den herria izanik, bere nortasunari ondo eutsi diona. Mendian galdurik, Pirinioetako artzainen bizimodu gogorra gogorarazten duen herria da Aria. Aezkerako hitzun gehien dauden herrien artean dugu Aria.

- **Biztanleak:** 59
- **Euskaldunak:** %38,22

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- **Hizlariak:** 10

- Zintak: **13**
- Pasarteak: **23**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **10**
- Bideoak: **13**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Isidoro (1928)



Donibane Garazin jaio zen, baina ama Aezkoako Ariakoa zuen eta herri honetan igaro du bizitza. Ezkondua, sei seme-alabaren aita. Abeltzaintzatik bizi izan da. Zaldi-kontrabandoan ere ibilia. Umetako gabon-kanta batekin ekin dio elkarrizketari. Bere umezaro gorabeheratsua, gerra denborako zenbait kontu, euskararen egoera eta abar kontatu ditu.



Jose Mari Adot Arrese (1936)

Arian jaio eta bizi. Ama Ariakoa eta aita Abaurregainekoa. Abeltzaina, behiak eta ardiak ditu.

Luzia Barberena Retegi



Arian jaio eta Arian bizi da orain, baina urte asko eman ditu Iruñerrian lanean, ostalaritzan lehendabizi eta denda batean gero. Ezkondu zenean denda bat jarri zuen Antsoainen eta han eman zituen 28 urte.



Rufino Barberena Retegi (1941)

Aezkoa eskualdeko Ariakoa. Artzaina eta laboraria.

German Berruezo Maisterra (1915)

Arian jaioa, Aezkoa ibarrean, 1915ean. Gurasoak ere bertakoak zituen. Bere emazte [Maria Maisterra](#)rekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1994an.

ARI-003 Hizlari ezezaguna

Zintaren atzean zera irakur daiteke: "Makumea Ariakoa da, gizona Garraldakoa baina euskaraz ez du etxean ikasi baizik eta Baxenafarroan ardiekin."

Florentina Maisterra Berruezo (1916)

Arian jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Maria Maisterra Pedroarena (1917)

Arian jaioa, Aezkoa ibarrean, 1917an. Gurasoak ere bertakoak zituen. Bere senar [German Berruezo](#)rekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1994an.

Santiago Nuin (1940)



Gaztetan Ameriketara ibili zen artzain-lanetan. Zelaietan alanbre-hesiak ipintzea zen lan horietako bat. Itzuli eta ezkondu egin zen. Laborantzan eta abeltzaintzan jardun du eta segitzen du jarduten. Garai batean hazitarako patata zen eskualdeko ekoizpen nagusia, baina gaur egun ez du dirurik ematen. Alaba bat du. Badaki euskaraz hark ere.

Joanito Retegi Juango (1943)



1943an jaioa, Ariako Erteikoa etxean, eta bertan bizi da egun. Aitetamak nekazariak zituen; aita etxekoa eta ama Abaurrepekoa, ez euskalduna. Hiru seme-alabetan zaharrena. 20 urte baino lehen mutil, oihanean, abeltzaintzan eta kontrabandoan aritu zen eta Galbau izengoitia hartu zuen oso iheslari ona zelako. Adin horretan Bartzelonara joan zen hargintza ofizioa (igeltseritza) ikastera. Emaztea ere Ariakoa du eta 4 seme-alaba dituzte. Elkarrizketan, Ion Retegi semea ere agertzen da tarteka.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Artzain-lanak Ameriketara (ARI-001/002)

Esparruak alanbreaz egitea eta desegitea zen beren lanetariko bat.

2. Hemen baino diru gehiago irabazten zen (ARI-001/004)

Lana gogor egiten zen baina irabazi ere ondo. Han geldituko zen bere gogoz baina andregaiari kasu egiteagatik itzuli zen. Gainera garai hartan hemen patatarekin diru egiten zen.

3. Ilobarekin euskaraz ongi ulertzen da (ARI-001/008)

Arian zaharrek egiten dute pixka bat, eta gazteak ari dira ikasten. Baina gazteek ez dute nahi eurekin hitz egin, ezberdin egiten dutelako. Ilobarekin, berriz, aritzen da.

4. Garraldan egon zen irakasle tolosarra (ARI-001/009)

Neska-irakasle oso jator bat egon zen Garraldan. Arian, Abaurregainen eta Hiriberrin egiten da bailaran gehien euskaraz.

5. Estudioa da inportanteena (ARI-001/011)

Estudiatzea da garrantzitsuena. Gustatzen zitzaion ikastea, baina soroko lanetara bidaltzen zuten anitzetan gurasoak eskolara beharrean

6. Jana eta lana seguru behar da (ARI-001/013)

Jana eta lana dira inportanteenak bizimodu honetan.

7. Zintzurreko mina (ARI-001/015)

Koinatuak ardoa eta hainbat gauza egiten ditu eta ekartzen dizkio. Ardoa ona da puxkat. Pastillak ere hartzen ditu eztarriko minerako.

8. Garaia (horreoa) (ARI-001/017)

Etxe aurrean harrizko garaia (garaia) dago. Konpontzea 25 milioi kostatu zen. Zurezkoak politagoak direla dio.

9. Baratzea (ARI-001/019)

Azak, kalabazinak eta abar ditu. Pena du tomaterik ez zuelako ipini, asko gustatzen baitzaio.

10. Istripua traktorearekin (ARI-001/020)

Traktorearekin errepidera erori zen ezpondatik behera eta min handia hartu zuen. Txikitan paperak izan zituen eta belarri batetik gor geratu zen.

11. Klima idorragoa Ariakoa Elizondokoa baino (ARI-001/023)

Amerikarrak etorri ziren Elizondotik eta Ariako klima idorragoa dela esan zuten. Inoiz hilabeterako etorri eta hamabosgarrenerako itzuli izan dira eguraldi txarrekin gaixotuta.

12. Anaia du Ameriketean (ARI-001/024)

Anaia du Los Angelesen. Ilobaren ezteietara joateko aukera izan zuen baina ez zen joan hegazkinean ibiltzeak beldurra eman ziolako.

13. Artzain ohien festak (ARI-001/026)

Auritzen egitekoa da Ameriketean artzain egondakoen bilkura-jaia. Lesakan egona da horrelako batean eta nolakoa izan zen kontaktzen du.

14. Arian, San Juanetan, hurritz-elorriak etxe atarietan (ARI-010/001)

Arian, San Juanetan, bedeinkatutako hurritz-elorriak jartzen ziren etxe atarietan.

15. Aria: Subilaroa, Gabon-gaueko kanta, danbor-hotsak I (ARI-010/002)

Eguberrietan danbor-jotzaileak egoten ziren. Gabonetako kanta eta koplak. Subilaroa.

16. Aria: subilaroa, Gabon-gaueko kanta, danbor-hotsak II (ARI-010/003)

Eguberrietako ohiturak Arian. Etxerik etxe joaten ziren kantari eta danborra jotzen zuten. Zer abesten zuten. "Subilaro eguna".

17. Ariatarrek San Juan bezperan surik ez (ARI-011/001)

San Juan bezperan ez zuten surik egiten Arian. San Juan egunean bedeinkatutako elorria ipintzen zen etxeetan, etxea babesteko.

18. Gabon-gaueko mezaren eta afariaren aipamena Arian (ARI-011/002)

Gabon-gaueko oilar-mezaren eta afariaren aipamena Arian. "Subilaro-gaua" esaten zioten.

19. Errege-egun bezperako karta-botatzea eta zintzarrotsak Arian (ARI-011/003)

Errege-egun bezperako karta-botatzea eta zintzarrotsak Arian.

20. Gabon-kanta (ARI-012/001)

Gabon-kanta.

21. Gabon-kantaren inguruko kontuak (ARI-012/002)

Aurretik abestutako gabon-kantaren inguruko kontuak.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com